

Esparru digital honetan sor daitezkeen **aukerak identifikatzeko prozesua** zabalik dauka

Kutxabankek 12 ‘fintech’-en ezagutza teknologikoa bateratu du

- **Europako 138 konpainiarekin lankidetzazko eta bateratzezko egitasmoak garatu ditu, eta hauk hainbat produktu, zerbitzu eta teknologia proposatu dituzte**
- **Eraginkortasunaren, bezeroaren esperientziaren, kalitate zerbitzuaren eta berrikuntzaren ikuspegitik sortzen diren aukerak aprobetxatzea da helburua**

2019ko irailaren 24an. Kutxabankek ‘fintech’ edo finantza-teknologiaren esparruko 12 zigilurekin akordio estrategikoak lortu ditu, teknologia berriei lotutako zerbitzuen eta produktuen bilduma zabala garatzen jarraitzeko asmoarekin, egun dituenak hobetuz.

Halaber, Kutxabankek ekosistema teknologiko honek berrikuntzaren eta hazkundearen ikuspegitik sor ditzakeen aukerak ezagutzen ditu, eraginkortasunaren, bezeroaren esperientziaren eta kalitatearen ikuspegitik, eta horregatik bere erabilerari ahalik eta etekin handiena atera nahi dio.

Egitasmo desberdinen hautaketa, azterketa prozesu zabal baten ondoren egin da, Bankuak azken hilabeteak egin baititu lan horretan. Prozesuan Europa osoko **140 ‘fintech’** desberdinek parte-hartu dute, eta hainbat produktu eta zerbitzu digital berri abian jarri dira elkarlanaren ondorioz, batzuek elkarrekin sortuta eta beste batzuek zuzenean bateratuta. Aukeratu diren 12 enpresek, prozesuan esku hartu duten Kutxabankeko alor desberdinek sumatu dituzten behar eta aukerei erantzuteko gaitasuna izan dute.

Aukeratu diren zigiluek, produktuekin nola teknologia berriekin zerikusia duten hainbat konponbide eman dute .

Negoioaren ikuspegitik, ‘fintech’ gehienek **finantzazio-formatu berriekin** zerikusia duten proposamenak egin dituzte, bai eta aurrezkiarekin eta inbertsioarekin, aseguruarekin eta ordainbideekin lotura dutenak ere. Beste etxe batzuek segurtasunari lotutako egitasmoak aurkeztu dituzte, prozesuen eta sistemen hobekuntzarekin eta araudiaren betearazpenarekin.

Baliabide teknologikoei dagokienez, teknologia disruptiboetan eta interneten garapenean aritzen diren ‘fintech’ enpresak aztertu dira. Parte-hartu duten enpresen %29k **‘big datan’-n**, analitika aurreratuan edota intelijentzia artifizialean oinarritutako balio-

proposamenak egin dituzte. %28k web teknologian oinarritu dute beren lana, aldiz %15ek APIetan eta plataforma erduetan. Gainerako enpresak 'blockchain' eta ezohiko teknologietan oinarritu dira.

Etengabeko monitorizazioa

Finantza teknologietako enpresak azterketako lehen zikloa amaitu ostean, industria berri honek ematen dituen aukerak aztertzen jarraitzen du Kutxabankek. Helburu horrekin, Merkatu Digitalaren Ikuskaritzako alorraren bitartez, Bankuak 'fintech' enpresen monitorizaziorako eta laguntzarako sistema ezarri du.